

bidegileak



Txomin Jakakortexarena (1906-1993)

Egilea:

XABIER KINTANA

Txomin Jakakortexarena Garmendia 1906ko abenduaren 19an jaio zen, Gipuzkoako herririk politenetako batean, hots, Berastegin, Nafarroaren mugan bertan, Leitzatik hurbil. Gure Txomin jaio zenean herriak 1.200 biztanle inguru zituen, gaur, azken erroldaren arabera, 983ra jaitsi bada ere. Haurtzaroa hor eman zuen, erdi baserri erdi herriko giro euskaldun-euskaldunean. Jaioterrian hazi eta hezia izan zen, beraz, eta hortixek jaso zituen, hizkuntzarekin batera, herri-sena, izaera, ohiturak, sentimena eta sinestea ere, bizitza osoan galdu gabeak.

Aita, Juan Martin jauna, gaztetan fortuna bila Amerikara joana zen, baina Ar-

gentinan pasatu zituen neke-urteek ez zioten berak uste adinako ondasunik ekarri. Semeari inoiz indiarrekin izandako gorabeherak kontatzen zizkion, bai eta hango animalia eta mamu beldurgarrien berri eman ere. Aitarengandik jasoriko irakatsi eta kontakizun horiek guztiok xeheki gogoratuko zituen Txominek, nagusitan bere bizitzaz egindako liburu mardulean.



Txomin Jakakortexarena Garmendia (1906-1993)



Berastegik mila eta berrehunen bat bizilagun zituen 1906an



Gorrine Txominen sortetxea, aspaldi eraitsia

Aita oso gizon naturazalea zen, eta semeari ingurumen hartako sekretu guztiak erakusten zizkion: amuarrainak eskuz arrantzatzeke Leitzarango errekarik egokienak —inoiz guardia zibilen ustekabeko agerrera *in fraganti* harripatuak izanik!—, udaberriko perretxiko zuri usaintsuak eta udazkeneko onddo estimatuak biltzeko txokoak, igerian egiteko erreka osi-nik hoberenak, mendietako iturrien kokalekua eta horien izenei buruzko istorioak, inguruko animalia eta zuhaitz-zuhaixken izenak eta bertako fauna eta floraren xehetasun jakingarriak ere. Hortixek etorriko zitzaion, segurki, bizitza osoan gorde zuen ehizazaletasuna ere.

Ama, Maria Bautista andrea, berriz, familia oneko alaba zen, pertsona ikasia eta landua, sentibera eta bihotz onekoa, jendea tratatzeko aparteko esku ona omen zuena. Irakurtzeko eta musikarako ere zaletasun handia zeukan eta balio hauek ongi jakin zuen txertatzen semearengan ere.

Senar-emazteok hiru seme izan zituzten: Txomin bera, Antonio (18 urterekin hila) eta Juan, (piano karrera egin eta Arabako Guardiako herrian musika-bandako zuzendari plaza atera zuena, bertan ezkondu eta bizi izana).



Jose Antonio Garmendia eta Frantziska Arregi Txominen aitona-amonak

Eskolaroa

Oso gaztea zelarik hasi zen Txomin pilotaz zaletzen, eta hamar urteak bete baino lehen herriko mutikoen artean pilotaririk onena izatera heldu zen. Herriko frontoian jarduten zuten, ahal zuen guztietan. Apustuak ere maiz egiten zituen bere lagunekin, gainerakoei abantailak eskainiz: batzuetan esku bat loturik, beste behin hankak sokaz amarraturik, eta, halere, ia beti irabazi egiten zien.

Herrian dotrina eta musika ikasi zituen. Kristau giroko familian hazia izanda, parrokiara joaten hasi zenerako bazekizkien berak aurretik kristau doktrinaren egia nagusiak, bai Historia Sakratuaren gertakaririk behinenak ere. Erlijiorako grina oso txikitandik jaso eta bereganatua zeukan. Berak kontatzen zue-nez, lehen jaunartzea bere bizitzako gertakaririk garrantzitsuenetako bat izan zen.



Udaletxe honetako eskolan eta pilotalekuan egin zituen lehen urratsak

Indiano batek ekarrita, herrian agertu zen lehenbiziko automobil zaratatsuaren lekukoa izan zen bera mutikotan, eta ezusteko gertakari horrek inguru hartan nolako hautsak harrotu zituen kontatzen zuen.

Txomin Jakakortexarena gazteak ezin irents ezakeen herrian izan zuen lehen maisu erdaldun eta basati hura, euskara besterik ez zekiten hurrek ulertzen ez ziotenean haiek krudelki zigortzen zituena, eta lazki kexatzen zen bere gurasoen aurrean harengandik jasotzen zituen etengabeko gaztigu absurdoenga-



Txomin bere aita eta ama eta anaia txikiarekin

tik. Maisuaren semearen basakeriak ere pairatu behar izaten zituen, eta txintik esan gabe egon behar, haren aitaren errepresalien beldur.

Zorionez, beste maisu bat izan zuen, euskalduna berau, eta beronengandik bai, polito ikasi zuten besteari behin ere ulertu ez ziotena. Zori hobea izan zuen, halaber, musika arloan, bere amaren belarri onari esker, arlo hori zaletasun handiaz hartu eta landu zuen eta. Pentagrama eta notak ikasteaz gainera, kantatzen ere saiatu zen, eta arrakasta handiz, dirudienez, herriko meza-elizkizunetako ohiko kantaria izateaz gainera, jaietan maiz inguruetako parroketara eramaten zuten eta.



Jakakortexarena anaiak latina ikasteko prest

Apaizgai denborako euskal lanak

Bere lehen ikasketak herrian bertan egin ondoren, apaiz izateko bokazioa nabaritut, herriko apaizarekin hasi zen latina ikasten. Bi urte geroago Andoaingo, Saturrarango eta Gasteizko seminarioetan osatu zuen bere apaiz irakaskuntza. Apaizgaitegiko irakasle gehienek euskal gauzetarako eskuarki erakusten zieten arduragabekeria, erdeinu eta mespretxu nabarmenak gorabehera, bere moduko apaizgaien artean behintzat giro oso euskaltzale eta abertzalea aurkitu zuen, eta horien artean lagun onak egin ere bai. Era



Txominen lehen Jaunartze gogoangarria

berean, Manuel Lekuona eta Joxemiel Barandiari bezalako irakasleak izateko zoria ere izan zuen, biak euskal kultura eta abertzaletasunaren ereile suharrak, eta hauek lan handia egin zuten euskaldun jatorriko gazte haiei begiak irekiarazten. Orduantxe hasi zen euskaraz idazten, lehenbiziko lanak apaizgaitegi-ko *Gymnasium* aldizkarian argitaratuz.

Garai hartan Euskaltzaleak taldea, 1930. urte-
tik hasita, urtero olerki-txapelketak antolatzen
hasi zen. Haietan, besteak beste, Lauaxetak,
Orixek, Lizardik, Loramendik, Etxeberriak eta
Zaitegi esku hartzen zuten. Sariketa haietara
hiru urtez bidali zituen bere bertsoak Txomin
Jakakortexarenak. Hirugarrenean, euskal giro-
ko poemetarako atalean, bera gelditu zen ga-
raile, «Len-euzkotarra» izeneko bertsoarekin.
Aitzol maisuak biziki estimatzen zuen Txomin
gazteak bertsogintzarako erakusten zuen eto-
rri fresko eta erraztasun hura. Orixe bera ere
iritzi berekoa zen. Poema horietako batzuk *Ar-
gia*, *Eusko Olerkiak* eta *Yakintza* zeritzen aldiz-
karietan eman zituen argitara: «Mitxeleta»,
«Ametsak», «Aingerutxo», «Gure astoak»,
«Amandrearen oillo-aldrak», «Maite eziña»,
«Burgos aldeko eizak», «Nere ametsetako
etxea», «Eiztariaren abestia» eta «Moro ka-
tua», adibidez. Bertso horietako asko egune-
roko gauza eta etxeko animaliei buruzkoak
dira, errealitate hurbilekoak, begikotasun eta
irri-keinu moldatuak. Lehen urratsak izan zi-
ren horiek, orduko kritikariek ongi igarri be-
zala, geroagoko lan handiagoen aitzindari.

Jakakortexarena, apaiz

1932.eko udaberrian apaiztu ondoren, be-
rehala, ekainaren 7an, Aiarako Salbantone-ra
bidali zuten (erdaraz Salmantón deitua), Bur-
gos ondoko arabar herri erdaldundu batera.
Berak pena handiz zekusan, behin euskara
galduz gero, zein arin galtzen diren euskaldun
nortasunaren gainerako ezaugarriak ere, Kan-
pionek bere *Erraondoko azken danbolinteroan*
salatu bezala. Ez zuen hura gustuko tokia izan.
Baserri giroan zen, baina hizkuntza eta ohitu-
ra erdaldun haiek deseroso sentiarazten zu-
ten. Kristau sentimendua ere ez zegoen oso
bizia, eta gainera, arazoak izan zituen herriko
maisuz ezkertiar antiklerikalarekin.

Hori dela eta, urte bereko azaroaren 19an,
Manuel Lekuonak hala eskaturik, Nafarrate
herrira etorri zen, parroko, garai hartan eus-
kara galtzear zegoen Arabako beste herritxo
batera. Tamalgarria benetan han aurkitu zuen
egoera: pobrezia, haurrentzako eskolarik eza,
jende-etsipena. Bera baina, elizako zereginez
gainera, herritarrekin eskuz esku lanean hasi
zen, haiei laguntzeko: garia ebaki, gurdia
kargatu, belar-metak egin, uzta bildu... eta
umeei eskolak eman ere bai. Laguntza horren
ordain-saritzat gauza bakarra eskatzen zien
bere eliztarrei: euskarari euts ziezaiotela,
aita-amek seme-alabei aitona-amonen hiz-
kuntzaz mintzatzen segi zezatela, belaun-
dien arteko kate luzea eten ez zedin. Eta,
bera herriko erretorea izan zen bitartean
behintzat, lortu egin zuen.

Apaiz gaztea 1936.eko gerran

Militarren altxamendua gertatu zenean Nafarraten zegoen apaiz gure Txomin. Euskaltzalea zelako zurrumurrua eskuindarren belarrietarako heldua zen eta berauek hil zezaketenez, berak abertzaleen aldera ihes egitea pentsatu zuen, baina, apezpikuaren erreguz, Nafarraten gelditu zen, alde batekoen eta bestekoaren suen artean. Eta, izan ere, hiltzeko mehatxuak alde bietatik jaso zituen. Apezpikuaren ordezkariak, ordurako Mateo Muxika gotzaina kanporatua baitzuten, Espainia «nazional»eko herri galduren batera bidali nahi izan zuen, baina Jakakortexarena gudariengana pasatu zen, eta 1937.eko urtarrilaren 22an «Araba» batailoiko kapilaua izendatu zuten, teniente graduarekin.

Hasieran, gerra Urduña-Amurrio aldean eman zuen, giro odoltsu eta latz hartan bere artzain-lana betez. Geroago, faxisten aurrerakadaz, Bilbo aldera gibelatu behar izan zuten. Bilboko frontea desagitean, Santanderrera joan eta hortik, itsaso eta lehorrean arrisku handiak gainditurik, noraezean, Frantziara alde egin zuen, *Molton* zeritzon ingeles itsasontzi batean.

Andoingo seminario txikiko Ustoa erretorea, Txominek berak margotua



Erbestera eta Iparraldera

Bide horretako arrisku beldurgarriak ikusita, Jainkoari, handik salbo irteten baziren, jende pobreenengana misiolari joango zela agindu zion. Eta azkenean Frantziara onik ailegatu ziren. Bordelen denbora apur bat egon ondoren, Ipar Euskal Herrira itzuli zen, lehenik Baionan eta gero Donaixtira, bertako parrokoa zen Arnald Artzubiren laguntzaile gisa geldituz. Horko herritarrek eskaini zioten harrera ona ez zuen inoiz ahantziko. Han bertako euskara gozoa ikasi ahal izan zuen, eta ez zen hori, gainera, Donaixtin izan zuen ezusteko pozgarri bakarra: egun batez, ustekabean, emozio handiz, bertako elizan ezkutaturik, Sabino Arana-Goiriren hezurak gordetzen zire-



Txomin Jakakortexarena 1932an, apaiz egin zen egunean



Saturraranen igarotzen zituen Txominek udako oporraldi batzuk



Txominek eta estreinatu zuten Gasteizko seminario berria, 1930ean

la jakin zuen, gerrako gorabeheretan berak galdutzat zeuzkanak.

Francok euskaldun apaiz «gorri-separatisten» aurka egindako propaganda negargarria gorabehera, azkenean Uruguayen onartuak izango zirelako berria jaso zuen. Bertako apezpiku bat, gainera, harainoko bidaia ordaintzeko prest omen zegoen, gero bertan egingo zuten apaiz-lanaz diru hori hari itzultzeko baldintzapean.

Horrela abiatu zen ba On Txomin 1940ko udazkenean Amerikara *Lipari* itsasontzian. Montevideora heltzean Minas deritzon herrira bidali zuen, apaiz-laguntzaile, Aragone artzapezpikuak. Handik Buenos Airesera joateko aukera izan zuen. Izan ere, Jakakortexarenak Argentinan egon nahiago zuen. Alde batetik han senideak zituelako eta, bestetik, Buenos Airesen, bera bezala, frankismotik ihes egindako abertzale asko bizi zirelako: Isaak Lopez Mendizabal, Andres de Irujo, Kepa Basaldua, Iñaki Azpiazu, Justo Garate, etab. *Laurak*

bat euskaldun-elkartearen, *Ekin* argitaldarien eta *Euzko Deia* eta *Tierra Vasca* aldizkarien sustatzaileak.

Argentinan Liniers-ko San Kaietanoko parrokian jardun zuen apaiz-laguntzaile, Buenos Aires inguruko herri batean. Baina euskaldun apaiza ez zen kale artean ibiltzekoa. Hiri-giro hartan apaiza baino gehiago «eliz administratzaile» sentitzen zen eta, hortaz, apezpikuari baserri giroko parrokia txiki eta pobre bat eskatu zion. Gainera, Santanderretik Frantziarako bidean zihoala, bizirik heltzen baziren Jainkoari egindako promesa bete nahi zuen.

Haren eskaria jakinda, Mercedes hiriko apezpikuak, Anunciado Seraffini jaunak erantzun zion Panpetan bazela herri behartsu bat, parroko-premia zuena, baina Argentina ez zela Europa, eta herri pobrea zioenean, ozta-ozta bizi zen jendeaz ari zela, eta giro hartan ez zuela inolako erosotasunik izango. Horrek baina, ez zion inondik ere ardura gure On Txomini eta azkenean Panpetara bidal zezaten lortu zuen.

Bere azken parrokia: Mones Cazon

Buenos Aires-tik laurehun bat kilometro mendebaldera aurkitzen da Mones Cazon, Panpa Hezea deitzen den eskualdean. Herrixka horretako parrokian hasi zen betetzen, bada, berriz ere, bere apostolutza lana. Garai hartan herriak bi mila biztanle inguru zituen, eta bertako lur gehienak hamar jabe-
ren eskuetan ziren, ia gainerako guz-
tiak horien peoiak eta neskameak iza-
nik. Zein ezberdinak ziren hura eta
berak Euskal Herrian ezagutu zuen gi-
roa! Alde batetik miseria gorria, eta,
bestetik, beronek ia beti aldean izaten
dituen lagun mamiak, hots, ezjakinta-



Pedro Basaldua Agirre lehendakariaren idazkariarekin

suna, analfabetismoa, degradazio morala. Ondo gogoratu zen, bai, Buenos Airesko apezpikuak aurretik esandakoaz. Baina, hale-
re, ez zen inoiz damutu.

Ez zen falta, jakina, jende apalengan maiz ger-
tatzten denez, berezko zintzotasuna, gizonta-





Nafarrateko herrixka honetako apaiz zela harrapatu zuen gerrateak

sun eta jatorrizko ontasuna ere pertsona haietako askorengan, eta hor oinarriturik, Jakakortexarena apaiza bere bokazioko artzain-lana egiten hasi zen. Lehenengo eta behin herriko jendearen kezkak jakiten eta premiak ulertzen hasi zen, eta ahal zuen guztian laguntzen ere bai. Hasieran, umeengana hurbildu eta parrokiaren inguruan jolas- eta joko-txapelketak antolatu zituen. Gurasoei banan-banan bisitak eginda, haurrei dotrina ikastera joaten uzteko erregutzen zien eta horrela, urratsez urrats, bere parroko-lanari ekin zion. Pobre haien ustez eliza eta erlijioa «aberatsen kontua» zen, eta hango aberatsek, berriz, Euskal Herritik iheska etorritako apaiz hura «gorri»tzat zeukaten. Orogen apaiza izan beharrak guztiengana hurbiltzera bultzatu zuen, eta bere nortasun sendo eta zin-

tzotasunari esker, pixkanaka batzuen eta bes-teen aldetik harrera ona lortu zuen.

Mutil gazteentzat kirol klub bat antolatu zuen; andreentzat, aldiz, Jesusen Bihotz Sakratuaren Elkartea, erlijio-jaien eta lehen jaunartzeen antolakizuna prestatzen arduratzeko. Parrokiako koroa ere sortu zuen, hasieran emakume hutsez osatua. Neska behartsuentzako joskintza-eskola bat prestatu zuen, eta haurrentzako eskolak ere bai. Eta peronistekin gorabehera tragikomiko batzuk izan ondoren, herrirako goi mailako ikastegia lortzeraino heldu zen.

Gasteizko seminarioan izan zenetik, oso kezkatu egon zen On Txomin arazo sozialez. Hori zela eta, herriko agintari eta gainerako bizilagunekin maiz bilerak antolarazten zi-



Araba batailoiko gudarien kapilau izendatu zuten Txomin, 1937ko urtarilaren 22an

tuen, gazteentzako lanpostuak sortu, elektrizitatea bertaraino helarazi, errepideak egin eta hobetu edota ura bilatu eta, hodietan sarturik, herriko etxe guztietara eramateko. Kaleak asfaltatzeaz ere arduratu zen. Eta interes horrekin emaitzak, pixkanaka, agertzen ari ziren. Espiritualki ez eze, materialki ere Panpako herrixka apala handitzen, txukuntzen eta edertzen, ari zen guztien begien aurrean.

Bere diruaz ordaindurik, elizaren ondoko lurrak erosi eta hor parke, lorategi, haurrentzako jolasleku eta bileratokiak eratu zituen, herritar guztien gozamenerako. Eliza zaharrari ere dorrea eraikiarazi zion, bai eta Gasteiztik kanpaia ekarri ere, Euskal Herrian urturiko brontzeak bere oihartzuna Panpa zaba-lean heda zezan.

Mones Cazongo apaizak lorturiko arrakasta bere begiekin egiaztatzeko, Seraffini apezpiku jaunak, bisita egin zien Done Josef egunean, eta ikusirikoa ikusi ondoren, —mezan 40 gizon heldu inguru jaunartzera heldu ziren eta!— izugarrizko laudorio publikoak egin zituen herriaz eta herriko apaizaz. Elkarrekin bazkaldu ondoren, apezpikuak eta On Txominnek pilota partida bat egin zuten herriko pilotari trebeenen aurka, eta, tranparik gabe, elizgizonak txapeldun gelditzean, herritar guztiak aho zabalik utzi zituzten. Era honetako pasadizo xelebreei esker, Txomin Jakakortxarena oso apaiz ezaguna eta maitatua bihurtu zen.

Peron diktadorearen pean

Juan Domingo Peronek Argentinan boterea 1945etik 1955era hartu zuenean, bere populismoaren porrot politiko eta ekonomikoa estali guraz, antiklerikalismoa bultzatu zuen, elizgizonak aberatsen alde eta behartsuen aurka zeudelako kontsignak lau haizeetara ereinez. Gizarte-ezegonkortasuna izaten den guztietan bezalatsu, azken orduko aprobe-txategiak eta hezkuntza gutxiko ezkertiarak beren kontutik elizak erretzen hasi ziren eta erlijioaren inguruko ekintza sozial guztiei debekuak eta oztopo sistematikoak ipintzen. Giro hori, zer esanik ez, ez zuen bat ere gogoko Mones Cazongo apaizak, eta sekula ez zuen ezkutatu peronismoari zion gaitzespena. Eta horrek buruko minak ekarri zizkion.


Peron amildu zeneko urteak, diktadorearen desagertzeaz batera, beste pozgarri bat ere ekarri zion: izeba Mikaela, bere amaren ahizpa, Berastegitik Argentinara joan zitzaion, Panpetako parrokia hartan laguntzeko asmoz. Andre behargin fina zen hura, eta frankismoaren errepresaliengatik Berastegin ondasun guztiez gabetua, eta azken urteetan bizimodua josten ateratzen zuen. Mones Cazongo joskintza-eskola berorrek bultzatu zuen.

On Txominen zaletasunak

Bere apaiz lanak uzten zion denboran, bereziki ukitzekoak diren erlezaintzaz eta literaturaz gainera, Mones Cazongo parrokoak, lehenago ere aipatu dugun bezala, ehizan jarduten zuen. Eskopeta eta ehiza-txakurretan oso aditua omen zen, eta animalia hauen hezle abila zela aitortzen zioten guztiek. Era berean, ehiztari bikaina zen, eta harro zegoen trebetasun horretaz. Inoiz harroegi ere bai, eta aldizka ametsetan zaletasun hori bekatzukoa izan zitekeelako kezka izaten zuen, bere buruari galdetuz «ea pentsa zezakeen Jesus inoiz ehizan ibilia zela», zalantza horri berberak, ironiaz, «apostoluekin arrantzan behintzat bai» erantzuteko baina. Eta egia esan, arrantzale moduan bera ere ez zela



Gorriek eta zuriek estu hartu zuten garaiko argazkia



Gipuzkoa itsasontzian Santoñan, atzerirako bidean, 1937ko ekainaren 21ean, «salvoconducto» eta guzti

makala erantsi beharko genuke. Izan ere, Argentinako Panpak oso aberatsak dira era guztietako ehizetan: oreinak, erbiak, eperrak, basurdeak..., eta aintzirak ere bai arrainetan. Horregatik gure apaiza beldur zen bera ere inoiz ez ote zen Mateo Txistu berri bat gertatuko, egunen batean eliz zereginak utzita erbien atzetik lasterka abiatzeko.

Martin Fierro-tik Matxin Burdin-era

Argentinako Panpetako paisaia, hango jendeen izaera, bizimodua eta ohiturak inork ongi azaldu baditu, hori, zalantzarik ez, José Hernández idazlea izan da, bere *Martin Fierro* liburuaren poemetan. Horrenbeste bazekien Txominek ere. Kontua da, eliztar batek behin egutegi bat opetsi ziola, eta berorren orrien atzeko aldean, egunez egun, obra horren poema bana zetorrela ikustean, jolasean bezala, lehen bertsoa euskarara itzultzea bururatu zitzaion. Hasieran olgeta hutsa zena baina, handik laster, erronka eta betebeharrak bihurtu zen harengan. Gautxoen poema hori euskaratzean, berarengandik urrun egon arren, bihotzean beti pil-pilean sentitzen zuen Euskal Herri mai-teari opari egiteaz batera, omenaldia eskaini nahi zion, halaber, berari hain harrera ona egin zion Argentinako herriari ere.

Ez da edonolako lana 1.193 estrofako itzulpen bat bertsoan, originalaren neurkera berean burutzea. Urte luzeak behar izan zituen berastegiarrak olerki haiek euskaraz behar bezala egokitzeke. Berak dioskunez, inoiz gauetan urduri itzartzen zen, egunean zehar asmatu ezinik ibilitako errima edo oina, bat-batean, erdi-ametsetan aurkiturik.

Azkenean 1972an, amaitu zuenean, *Ekin*-ek, Buenos Airesko euskal argitaletxeak plazaratu zuen *Matxin Burdin* liburua, noiz eta jatorrizko edizioaren lehen mendeurrena bete zen ur-



Garikoitz santuaren etxe honetan aurkitu zuen babeslekua

PRIN RÉDUIT
A 60F
20 15 10 5 0

RÉPUBLIQUE FRANÇAISE
MINISTÈRE DE L'AGRICULTURE
Département D.
Arrondissement d.

PERMIS DE CHASSE DÉPARTEMENTAL
PRIX 74 Francs

CHASSES-PYRÉNÉES
BAYONNE

SIGNALEMENT
Age de 30 ans
taille d'un mètre 1.68
cheveux chât
front chât
yeux chât
nez chât
bouche chât
dentition chât
tatage chât
tatu chât

PERMIS DE CHASSE
délivré à M. Jaca -
Cortajarena, *[Signature]*
le 16
domicile à Lescar
profession d. *[Signature]*
Le 27 Sept 1937
N° 7009

DÉPARTEMENT
des
BASSES-PYRÉNÉES
Commissariat spécial
de Bayonne
30 11 37

Annexe I.
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE
PASSER-PASSEZ

M. (nom) Jaca Cortajarena
(Prénoms) Domingo
né le 16 Octobre 1906
à Berastegi
et de Juan María
Maria Ramon
Profession
Domicile
Adresse
Nationalité
Venant de
Accompagné de
Précédente identité
N° 1005

SIGNALEMENT
Age 30 ans
Taille 1.68
Cheveux chât
Sourcil chât
Haut chât
Yeux chât
Nose chât
Bouche chât
Front chât
Tatu chât

Signature de titulaire
Date à Bayonne le 16 juil 1937
La Commissaire spécial.

Frantziako Errepublikak emandako baimenak eta agiriak

tean. Hiru edizio berezi egin ziren: luxuzkoa, erdi-luxuzkoa eta arrunta.

Argentinako prentsak izugarrizko garrantzia eman zion argitalpen horri eta kultura ministroak berak Ministerioaren areto ederrean hartaz mintzatzeko eskatu zion itzultzaileari. On Txomin ongi baliatu zen bere hitzaldiaz, bide batez Francoren diktadurak euskaldunoi egindako kalteak jendaurrean salatzeko.

Argentinako euskaldunek *Matxin Burdin* pertsonaiari omenaldi bat egin nahi izan zioten, eta urte berean Mones Cazón-en herri mugakide batean, Pehuajó-n, berriz ere liburua aurkeztu eta hari buruzko berbaldia eskaini behar izan zuen Jakakortexarena apaizak. *Lagun onak* orfeoia abestu zuen han, Argentinako leku guztietatik hara gautxoan larruzko jantzi jator-dotoreaz helduriko zaldun uga-

rien aurrean. Bazkarian mila pertsona inguru bildu omen ziren.

Matxin Burdin lan erraldoia burutu ondoan, ezinbestean, itzalean bezala gelditzen dira aita Txominen gainerako lanak, baina horrek ez du esan nahi, zein bere neurrian, kalitatez txarragoak direnik.

Ez zen *Martín Fierro*-rena egin zuen itzulpen bakarra. Enrique García Velloso-ren *Gernikako arbola* ere euskaratu zuen. Hizkuntza jator eta txukunaz zerabilen kezkak hiztegi bi prestatzera bultzatu zuen, biak *Ekin* argitaldariak atereak: *Erdara-euskara* bata (1964) eta *Euskara-erdara* bestea (1986). Jokin Zaitetik Guatemalan publikatzen zuen *Euzko-Gogoa*-n ere parte hartu zuen, hara bere olerkiak bidaliz. Era berean *Zure anaia ixilkari* (1961) argitaratu zuen, klandestinitateko gorabeherak kontatzen dituen.



Buenos Airesen Ander Iruxorekin hitzaldia egiten Altseingo aretoan



Mones Kazon-go meza-laguntzaile izandakoen familia eta lagunekin

On Txomin erlezain

Txomin Jakakortexarenaren bizitzako ikuspegi jakingarrienetako bat, zalan-tzarik gabe, erlezaletasuna izan zen. Erleekin lehenbiziko harremanak, antza, Nafarraten izan zituen On Txomin-ek, bertako apaiza izan zenean, berak dioskunez, herri horretan erlakume bat bildu zuen eta. Dena dela, esan behar da gerra aurrean erlezaletasuna aski hedaturik zegoela Euskal Herrian. Edonola ere, Mones Cazonera heltzean, erleak hazteko interes handirik ez zegoen herrian, eta bizpahiru lagun besterik ez ziren intsektu horiez arduratzen, antzinako erlauntz zaharretan eta oso uzta apalekin. Egia esan,

hango jendeak erleen beldur ziren eta ez zekiten nola gobernatu. Gogoan izan Amerikan lehenago ez zegoela erlerik, espainol-portugesek animalia hori hara eraman zuten arte-raino.

Kontua da, Nafarraten erleekin izandako esperientzia hura berriro gertatu zitzaiola Argentinan ere, udako egun bero batean, Mones Cazongo eliza atzeko gereziondo baten abarretan beste erlakume bat topatu zuen eta. Aurkikuntza horrek ordura arte ahantzi-xea zeukan zaletasun zaharra berpiztu eta laster erlategi ederra antolatu zuen harekin.



Kazongo sendagilea eta familia. haurra besoan duen Txominen izeba Mikaela Garmendiarekin

Ahal zituen liburu guztiak irakurri zituen erleei eta erlezaintzari buruzko informazio eguneratua izateko. Herriko erleak odolki-detasunagatik oso endekaturik zeudela konturatzean, Estatu Batuetatik eta Italiatik arraza hobeko erle erreginak (*Apis mellifera ligustica*) erakarri zituen, berauek, otzanagoak izateaz gainera, ezti asko eta erlakume gutxi egiten dute eta.

Erleek ematen zioten ezti ugariaren salmenta-irabaziak berriz ere erlauntzetan inbertituz, gure apaiza industria txiki bat sortzeraino heldu zen. Auzoko zurgin batekin mintzatu zen, eta beronek erlauntz modernoak egiteko lantegi bat antolatu zuen herrian. Parrokiaren babesean, kristau doktrinara zetozen haurren artean erlezaletasuna piztu eta erleak gobernatzeko modu teoriko eta praktikoa irakatsi zien. Ikasle aurreratuen artean er-



Altsein semearen emaztea eta haurrak Txominen eta izebaren besoetan

launtzak erregalatzen zituen, eta pixkanaka, Mones Cazongo etxauntza gehienetan erlategi ederrak ezarri ziren.

Erleek beren jabeei behi, zerri, ardi eta ohiko ganaduak baino diru-etekin handiagoa ematen zietela ikustean, gero eta jende gehiago hasi zen erlezaletzen. On Txominen erlezaintza-eskola laster famatu zen, eta inguruko herrietatik ere ikasleak heltzen zitzaizkion. Hari esker herriko jendea izugarri aberastu zen eta, Erlezainen Elkarte antolatu ondoren, laster hartarako egoitza bat eraiki zuten, bertan bilerak egin eta hitzaldiak emateko, kanpotik arlo horretako aditurik onenak ekarriz.

Handik urte batzuetara Mones Cazon izena, ordura arte Argentinako ohiko mapetan agertu ere egiten ez zena, entzute handikoa egin zen, batez ere Ingalaterran antolatu zen Erlezaintzaren Nazioarteko Biltzarrean, non goa eta hangoxe ezti eta argizariak txapel-dun gelditu zirenetik. Jakakortexarena apai-zak Argentinako herri hura utzi zuenean inguru hartan jada 30.000 erlauntz ziren, hor-ko erlezainek beren interesetarako 4 elkarte izanik. Gainera, italiar arrazako 3.000 erle-erregina hazten zituzten urtero, saltzeko. Pentsatzekoa da gure dendetan salgai da- goen ezti asko, inoiz Asiskoaren izenaz ere merkaturatua, azken buruan ez ote diogun On Txomini zor, berak Amerikan fundatu zuen industria hargatik. Zalantza izpirik gabe, bera izan da Euskal Herriak inoiz izan duen erlezainik handiena, bai teoria aldetik, bere *Erlezaintza I* eta *II* liburu sakonak lekuko, eta bai praktikan ere, lortu zituen emaitza harri- garrien argitan.



Berastegiko sukaldean bere izeba Mikaela Garmendiarekin,
Kazon-dik bidalitako ezti-ontziari begira

Bekatuak eta Prakagorri

Planta oneko eta itxura ederreko gizona iza- nik, eta nortasun sendokoa gainera, ez da harrigarria bere bizitzan zehar emakume ba- tek baino gehiagok, erlijio-eskrupulu handi- rik gabe, Txomin Jakakortexarena apaiz gaz- te ederrari begia botatzea. Bere biografiaz berak idatziriko liburuan lau zapabost aldiz behintzat emakumeek seduzitu nahi izan zu- tela aitortzen digu, alde batetik lotsaturik, baina, aldi berean, nolabait harro, hiruretan, Kristori egindako promesari eutsiz, tentazio- tik ihes egin zuelako. Hori aski garbi mintzo zaigu bere sendotasun moralaz. Izan ere, emakumeak izan ziren, dirudienetik, izan zi- tuen tentabiderik azpimarragarrienak.

Tentazio hauen inguruan, eta bere bizitza lu- zean zehar izan zituen beste asko direla eta, On Txominek bazuen bere *imaginarium* pri-



Berastegiko sukaldean liburu artean lanean

batuan, aingeru jagolearen kontrapuntuko antagonista balitz bezala, prakagorri pertsonal bat, tentatzaile berezi bat, txikitandik ametsetan agertzen zitzaiona. Izan, bere parrokian Done Mikelen aldarean arkanjelu horren eskultura bat bazen. Hartan Done Mikel aingeruak bere oinpean zeukan deabru okertu eta itsusi bat ikus zitekeen, eta haurtzaroko irudimenaz, bekatu-egoera orotako eragile begitantzen zitzaion hura. Horren ahoan Txominek, erdizka umorez eta erdizka burukritika egiteko, tentazioaren inguruko iruzkinak jartzen zituen, solaskide, horiek maiz bertotan ere adierazirik. Bere barne bizipenak, horrela, literaturazko irtenbide original horrekin sublimatzen zituen nolabait.



Matilde Ugartemendia azken urteetako etxeakoandrearekin

Euskara ez da ikur hutsa

On Txominen bi goi asmoetako bata Jainkoa bazen, bestea abertzaletasuna zuen eta hor, nola ez, euskarak aparteko tokia zeukan. Ondo jabeturik zegoen bera bere hizkuntza galtzen duen herriak, aurreko belaunaldi guztiekiko izpirituzko lotura galtzeaz batera, bere askatasunerako giltza ere galtzen duela, eta bera, abertzale zintzoa izanik, ez zuen inondik ere hori gertatzerik nahi. Horrez gainera, haren garaiko abertzale erdaldundu askorentzat ez bezala, euskara ez zuen aberriaren ikur hutsa, txiki-txikitandik famili giroan, bizipen eta oroitzapen pertsonalez beteriko haurtzaro zoriontsuan ongi erroturiko tresna baizik. Etxeko girotik kanpo ere euskara landu, ikasi eta miresten zuen Txominek, eta hori ondo nabari ikus dezake haren lanak irakurtzen dituen edozeinek.

Atzerriko hizkuntza baten azpian egondako beste mintzaira askoren antzera (suomiera,



Demetrio Salbarredi batetik bestera ibiltzen zuen txoferra

hungariera, irlandera, txekiera...), gure artean ere, erraz uler daitekeen defentsa-jarrera berberagatik, gehiegizko garbizaletasun giroa sortu zen gerra aurreko garaian. Horren arabera, euskara, latinetik eta are indoeuropar hizkuntzetatik ere eratorria ez denez, uste aski zabaldua zen ez zuela eskubiderik Europako eta munduko gainerako kultur hizkuntza gehienek aberasteko onartua duten bideari jarraitzeko, hots, *politika, geografia, biologia, ekuazio, orkestra* edo *radar* moduko berbak bereganatzeko, horiek, espainolengandik jasoriko erdarakada hutsak zirelakoan. Baina, egia esan, guztiok berez nazioarteko kultur hitz oso hedatuak dira, eta horrexegatik frantsesez, ingelesez, alemanez, errusieraz eta munduko beste hizkuntza askotan hartzen dituzte ontzat.

Irizpide zorrotz horretan hazi eta hezia izan zen Txomin Jakakortexarena jauna, eta erbestera joan eta han bertoko giro berritik urrundurik gelditzean, ez zuen izan gaztaroko oinarri horietatik pixkanaka eboluzionatzeko erarik izan. Horregatik, bere ideia tradizionalekin bat etorritz, Kardaberaz Bazkunako kidea izan zen, bai eta Euskerazaintzakoa ere.

Berrogei urteko erbestealdi luzeko testuinguru horretan ulertu eta epaitu behar da, ene ustez, bere liburuei darion garbizaletasun hori. Horrek ez du esan nahi Txomin Jakakortexarena ikuspegi itxi eta laburreko pertsona zenik, ez eta gutxiagorik ere, nor bere giro eta bizipenen arabera moldatua izaten delako, ezin bestean.

Euskara batuari buruzko iritziak

Hil baino egun batzuk lehenago harekin solasean jarduteko zoria izan nuen. Bai eta ederto pasatu ere. Bion gogoko bi gai nagusi hauetaz luzaz mintzatu ginen: erleez eta euskaraz.

Ongi baino hobeki azaldu zidan, egiazko maisu baten hitzekin, berak erleekin Amerikan egindako lan bikaina. Baina banekien euskara kontuan ez ginela aburu berekoak eta, horregatik, gure egotaldi gozoa ez garrazteko, ez nuen gai hori ukitu nahi. Berak, ordea, euskara batuaren kontua aipatu eta hartaz galdera batzuk egin zizkidan. Nik, bera ez mintzen ahaleginduz, zintzotasun osoaz erantzun nion, eta argitzeko eskatu zizkidan puntu batzuk xeheki azaldu ere bai.

Laster konturatu nintzen zertan oinarritzen zen euskara batuaren aurka zeukan aurreiritzia: batua, azken buruan, euskara eta Euskal Herria bihotzez maite ez zituzten ezkertiar batzuek asmatuiko zerbait zelako susmoan. Arazoa benetan zertan zetzan erakutsi nio-nean, euskara batuan bai euskal erroik sortu-riko hitz berriak eta bai latin eta grezieratik harturiko nazioartekoak ere —kasu askotan zientziarako ezinbestean behar genituenak— onartzen zirela entzutean, eta euskara batuaren oinarria Euskal Herri osorako kultur hizkuntza nazionala prestatzea zela ulertzean, hau da, ofizialtasunerako gai, be-



Jakakortexarenak idatzitako
eta itzultitako zenbait liburu



Txominek irakatsitako txistulariak eta dantzariak Berastegin

rak, oso-osoan, honela aitortu zidan: «Ez zen hau ba orain arte nik aditua nuena. Zuk diozuna horrela baldin bada, horretan bat nator ni ere zurekin. Hori lehenago jakin izan banu, gauzak segur aski bestela idatziko nituzkeen».



Txomin Jakakortexarena jaio eta hil zen Gorrineko ohea



Txomin Jakakortexaren azken argazkia, 1993ko martxoaren 20an Berastegin bertan egina

Azken urteak Euskal Herrian

Urte askotako bere lanari esker, Panpetako herri hartako bizimodua bideraturik zekusan jada aita Txominek. Baina bera ere adinean aurreratua zen eta, Iparragirreri bezala, bazeen bere bihotzean sorterrira itzultzeko agintzen zion barne-ahotsa, ezin isilarazia.

Eliztarrek pena handia hartu zuten. Joan aurretik omenaldi ederra egin zioten, eta haietako asko, 400 kilometro eginda, Buenos Airesko aireporturaino ere joan ziren, azken agurra egitera. Irten baino lehen *Casa Rosada*-n diputatuen eta Kultura ministroaren besarkada eta agur beroa ere jaso zuten. Hunkigarria izan omen zen Argentinatik alde egitean hango lagunek izeba-lobei eskaini zieten agurraldia.

Lipari itsasontzian egun asko behar izan zituen Europatik Amerikaraino heltzeko, baina 1980. urtean handik itzuli zenean, gau bat aski izan zuten Argentinatik Madrilera eta handik Hondarribiara iristeko. Herri-minak jota gelditu zen Gipuzkoako herri amestuak berriz ikustean. Oroitzapenean gordetzen zituen gaztaroko imajina zaharrak orain bere begiekin zekuskienekin konparatzen zituen halabeharrez. Une zirraragarriak Tolosatik gora bere Berastegi maitera igotzen igaro zituenak.

Berak aitortzen duenez, Donostiako apezpiquarekin, Jose Maria Setien jaunarekin, eta Tomas Otaegi, bere herriko parrokoarekin, ezin ordainduzko zorra zuen. Izan ere, berauek,

Txomin Jakakortexarenaren bizitza latz eta gorabeheratsuaren berri izanik, frankistek berri eta bere familiari ondasun guztiak kendu zizkietela jakinda, Berastegin etxebizitza bat egokitu zioten, mojek hutsik utziriko etxe batean, kapera eta guzti, bertan On Txomin eta bere izeba zahartzaroan duintasunez eta lasaitasun ongi mereziaz bizi zitezen.

Han igaro zituen bere azken urteak, aspaldiko irakasle eta lagun zaharren bisitak izaten, Kardaberaz Bazkunako eta Euskerazaintzako lagunekin bilerak egiten, Nafarrate herria bisitatzen, urtero Araba batailoiko gudari beteranoekin meza-bazkariak antolatzen, liburuak eta poemak idazten, Berastegiko neska-mutikoei txistua eta dantza erakusten, eskatzen genizkionoi atseginez elkarrizketa aberasgarriak eskaintzen, bizitza luze eta emankorrean eskarmentu ugari izandako patriarkaren maisutasun oparoaz. Bizi-legea halakoxe gogorra da eta, bere izeba maitearen heriotza ikusi behar izan zuen mingostasunez. Harrezkero, Matilde Ugartemendia andre zintzoa izan zuen etxeko andre.

Azken idazlanak

Aberrira itzuli eta gero, ez zuen jakin gure Txominek luma alde batera uzten. Lehentxeago aipatu denez, erleei buruzko bi liburu mardul argitaratu zituen *Erlezaintza I* eta *II* (1988). Miguel Angel Etcheverry medikuaren eta beronen alaba Maria Elena soziologoak serologiari buruz prestaturiko ikerlana ere itzuli zuen *Rh ezezkorra euskaldunetan* izenaz (1990). *Bizitzan bi goiasmo* (1990) ere argitaratu zuen, Mones Cazongo eliztarren mesederako erdaraz ere, *Dos ideales en la vida* 1993an plazaratua, bere buruaren biografia. *Edozein euzkaldun baten bizikerak* ere eman zuen argitara 1992an. Lan nagusioz gainera, poema batzuk ere idatzi zituen Euskerazaintza-ren aldizkarian.

Nik 1993ko martxoaren 20an bisitatu nuen, 88 urte zituela, Bizkaiko *Erleak* aldizkarirako artikulua bat egiteko xedeaz. Oso harrera ona egin zidan, eta ia egun osoa eman genuen elkarrekin, otordua barne, bion intereseko kontuez mintzatzen: erleak, abertzaletasuna, euskara, gure herriaren etorkizuna. Funtsean gauza gehientsuenetan bat gentozen biok. Urteak gorabehera, burua erabat ongi zeukan, argitasun miresgarriaz gainera. Tamalez, orduan hasiriko adiskidetasun horrek ez zuen segida luzerik izan. Handik bost egunera, martxoaren 25ean, Euskaltzaindia,



Berastegiko hilobian oroitarria jartzeko Argentinatik etorritako lagunak Mari Karmen Gamendia Kultura Sailburuarekin, 1999ko maiatzaren 23an

bere hileroko batzarra egiteko, Iruñean bil-
durik zelarik, On Txomin, bihotzekoak jota,
hila zelako berri ertuna jaso nuen. Asko izan
ginen, zahar eta gazte, biharamunean, oso
hunkiturik, azken agurra emateko Berastegi-
ra hurbildu ginenak.

Bere bi goi asmo haiekin beti bat bizi izan
zen: kristau zintzo moduan bere bidean on-
gia ereinez, lagun hurkoari eskua luzatuz, eta
abertzale gisa euskara eta Euskal Herria
maitatuz eta bultzatuz. Eredu imitagarria
utzi zuen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maria Dolores Matxineari
- Xabier Lopez-Mendizabali

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko iraila
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2449-5 (Lan osoarena) 84-457-2450-9
L.G.:	BI - 1849-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística